


Botoia biraka

Nola eralda daiteke energia forma batetik bestera?

Materialak

- 1 metroko hari bat
- Bi zuloko botoi handi bat



Zer egin

1. Igaro haria botoiaren bi zuloetatik, batetik sartu eta bestetik ateraz.
2. Egin begizta handi bana hariaren muturretan.
3. Jarri botoia hariaren erdian.
4. Sartu eskuak hari-begizta banatan.
5. Eman birak botoiari zure aldera, haria estu-estu bihurritu arte.
6. Zabaltu besoak, eta tenkatu haria. Zer gertatu zaio botoiari?
7. Lasaitu haria. Zer gertatzen da haria tenkatzen eta lasaitzen jarraitzen baduzu?

Zer gertatzen da?

Haria bihurritzean, energia igorri duzu harira, eta han metatu da. Energia metatuari energia potentzial deritzo. Haria tenkatzean, energia metatu hori botoira igaro da, eta botoia birak ematen hasi da. Hori energia zinetikoa da, hau da, mugimenduaren energia. Biraka ari zen botoiak harira itzuli du energia. Haria tenkatu eta lasaitzean, energia eraldatu egin da: energia zinetiko izatetik energia potentzial izatera igaro da, eta alderantziz. Giltza eman behar zaien erlojuek energia zinetikoa eta energia potentziala erabiltzen dituzte. Erlojuari giltza ematean, energia metatzen duzu. Energia askatzean, erlojua martxan jartzen da, harik eta energia metatua gastatu arte.